

A·25 Guitar Stream: Gitarrari aplikatutako ingeniari-tza elektrikoa

01

Kurtsoa/Maila

2. Batxilergoa

Datak

2025 Abendua - 2026 Urtarrila

Ikaskuntza-arloak

Fisika
Kimika
Kultura zientifikoa
Lanbide-orientazioa
Marrazketa Teknikoa
Teknologia

Jarduera formatua

Enpresara bisita

Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

Irismen geografikoa

Bizkaia

Jarduera ematen duen erakundea

UPV/EHU

UPV/EHUKo Ingeniaritza Eskolara egingo duten bisitaren bidez, ikasleek aukera izango dute Ingeniaritza Elektrikoaren aplikazio-eremu ugari-
ei buruz hausnartzeko. Horretarako, gitarra elektrikoaren eraikuntza errealaren adibidetik abiatuta, haren funtsezko printzipioak baliatuko dira printzipio horiek egungo sistema elektrikoetan duten aplikazio-eremu erraldoira estrapolatzeko.

STEM Deskribatzaileak

STEM 1	STEM 2	STEM 3
STEM 4	STEM 5	STEM 6

Baliabideak

Baliabide materialak

Ikasleek saiakuntzak egiteko behar diren espazioak eta baliabideak izan beharko dituzte.

Baliabide ekonomikoak

UPV/EHUKo Eskolara joan-etorriak.

Informazio gehiago

ehu.eus/es/web/bilboko-ingeniari-tza-eskola/ikastegia/pbls/guitar_stream

A·25 Guitar Stream: Gitarrari aplikatutako ingeniari-tza elektrikoa

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Aurretiko lana ikasgelan:

Bideokonferentzia baten bidez, jarduera aurkeztuko da (nola lortu gitarra elektriko batek jotzea) eta oinarritzko galdera batzuk planteatuko dira. Ikasleek erantzunak lortu beharko dituzte UPV/EHUko Eskolara joan aurretik.

Garatze fasea

- Enpresara egindako bisitan, gitarra elektrikoaren funtzionamenduaren printzipioa deskribatuko da, eta soinu-kalitatean eragiten duten oinarritzko parametro elektromagnetikoak neurtzeko saiakerak egingo dira.
- Aztertutako funtsezko parametroek sistema elektrikoaren oinarritzko printzipioen parte dira, eta erakutsiko da nola aplikatzen diren eta zer garrantzi duten gure eguneroko bizitzan.
- Jardueran zehar, ikasleei irakatsiko zaie STEAM diziplina batzuekin

elkarreraginean ari direla, eta unibertsitate-zentro bat bisitatzeko aukera izango dute, eremu horretan duten lanbide-bokazioa sustatzeko.

Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek problema edo proiektu egoeran ikasitakoa aplikatuko dute eta jarduera baloratuko dute.

A·25 Gutar Stream: Gitarrari aplikatutako ingeniartza elektrikoa

03

CURRICULUMAREKIN LOTURA

Jardueran lantzen diren curriculum-ikaskuntzak:



Fisika

- Harien eta elektromagnetismoaren teoriaren oinarriak. Ikasleek ikasiko dute erresistentziek, bobinek eta kondentsadoreek eta fenomeno elektromagnetikoek osatutako zirkuitu elektrikoak direla ingeniartza elektrikoa azaltzeko oinarria.



Ikus-entzunezkoen kultura

- Diseinu estetikoa, bukaerak, soinua.
- Ikus-entzunezko ekoizpeneko lantaldeak: zuzendaritza, produkzioa, kamera/argazkia, soinua, artea, postprodukzioa.



Matematika

- Saiakuntzen emaitzak matematikoki parametrizatzea.
- Zirkuitu eta osagai elektrikoak: seinale elektrikoaren neurketa eta behaketa. Neurgailuak. Erabiltzeko arauak.



Teknologia

- Diseinua eta fabrikazioa.
- Teknologia ingeniartza elektrikoari aplikatzea. Laborategiko saiakuntzak. Energia konbentzionala nahiz berriztagarria sortu, kontsumitu, garraiatu eta banatzeko adibideak erakutsiko dira.